
Gradu Amaierako Lana
Erizaintzako gradua

**Gainpisua eta Obesitatea duten umeen bizitza kalitatea eta
osasun ongizatea bermatzeko erizaintza zainketak**

Egilea:

June Esnal Alzugaray

Zuzendaria:

Beatriz Pereda Goikoetxea

Donostia, 2024ko maiatzaren 2an

ERANTZUKIZUN OHARRA (Erizaintzako Gradua, Donostia, UPV/EHU)

Dokumentu hau ikasle baten Gradu Amaierako Lanaren emaitza da, eta egilea da lanaren edukiaren arduraduna.

Beraz, lan akademiko honek epaimahaiak antzemandako akatsak izan ditzake, eta baliteke edizio honetan egileak zuzendu ez izana.

Lan hauek, prozesuarekin eta defentsarekin batera, 5-10 puntuko nota izango dute, eta, beraz, lanen kalitatea eta akatsen kopurua oso desberdinak dira lan batzuen eta besteen artean.

Euskal Herriko Unibertsitatea, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Gipuzkoako atala), Gradu Amaierako Lanen Epaimahaiko kideak eta irakasle tutorea ez dira Gradu Amaierako Lan honen azken edukiaren erantzule.

LABURPENA

Sarrera: Mundu mailan, Gainpisua eta Obesitatea duten umeen prebalentzia % 23koa da. Hortaz, erizain bezala gaixotasun hauen tratamendu egokia lehenetsi behar da. Zainketak modu integral batean eman, indibidua eta bere inguruari osasun-gaixotasun prozesuan jarraipen bat eginez eta umeen bizitza kalitatea eta osasun ongizatea bermatuz.

Helburuak: Helburu orokor bezala, GP eta OB duten umeen osasun ongizatea eta bizitza kalitatea bermatzeko zainketak aztertzea. Helburu espezifiko bezala OB eta GPak umeetan duen eragin biopsikosozial kulturala ezagutzea eta hezkuntzak duen garrantziaz jabetzea.

Metodologia: PIO egituran oinarrituz, MeSH, DeCS eta hitz gakoak erabiliz bilaketa desberdinak egin dira Pubmed, Dialnet, Cuiden, Cochrane eta Biblioteca Virtual de la Salud datu baseetan. Gainera, aldizkariak, web orriak eta zeharkako bilaketen bitartez artikuluak lortu dira. Guztira, 26 izan dira erabilitakoak, kanporatze eta barneratze irizpideetan oinarrituz, CASPE txantiloien bidez aukeratuak.

Emaitzak: Gainpisu eta Obesitateak umeetan duen eragin biopsikosozial eta kulturala etengabeko elkarreraginean daude. Eragin hauei aurre egin eta umeen osasun ongizate eta bizitza kalitatea bermatzeko, ondorengo erizaintza esku-hartzeak burutu daitezke: dietak, kirola, interbentzio psikosozialak, ebakuntzak eta farmakoak. Horretarako, erizainek hezkuntza oinarri hartzen dute, eraginak kontuan hartuz zainketa egokiak aukeratzeko.

Eztabaida: Diru sarrerek baldintzatzen duten osasun arazoak dira, familiaren egoera guztiz barne hartzen duena. Soziki, edertasun estandarren inguruko lanketa bat egin behar da. Guzti hau jorratzeko erizaintza komunitarioaren lanaz gain, eskola erizainen baliabidea espezializatua eta gertukoa da.

Ondorioak: Osasun ongizatea eta bizitza kalitatea bermatzeko, elkarreraginean dauden faktore biopsikosozial eta kulturalak modu holistikoan ulertu behar dira. Hauek identifikatzeko, umearen osasun fisiko zein psikologikoaren egoera, sarrera ekonomikoak, familia egoera, bizitokia etab. hartu behar dira kontuan, eta hauen arabera jardun. Interbentzio mota desberdinak ezagutuz, umeari beharrak hobekien asetzen dizkionak ezarri behar zaizkio.

Hitz-gakoak: “Haurtzaroko obesitatea”, “Haurtzaroko gainpisua”, “Erizaintza zainketak”, “Haurtzaro osasuntsua”, “Bizi-kalitatea”, “Haurren ongizatea”.

AURKIBIDEA: muina.

1. SARRERA	1
2. HELBURUAK	2
2.1. Helburu orokorrak	2
2.2. Helburu espezifikoak	2
3. METODOLOGIA	2
3.1. Bilaketa bibliografikoaren estrategia	2
3.2. Bilaketa bibliografikoaren emaitzak eta artikuluen aukeraketa	4
4. EMAITZAK	6
4.1. Gainpisua eta obesitatearen eragina umeetan	6
4.1.1. Umean duen eragin biologikoa.....	6
4.1.2. Umean duen eragin psikologikoa.....	6
4.1.3. Umean duen eragin soziokulturala.....	7
4.2. Umeen bizitza kalitatea eta osasun ongizatea	10
4.3. Erizaintza esku-hartzeak OB eta GP duten umeetan	10
4.3.1. Erizaintza esku-hartzeak.....	11
4.4. Estrategia espezifikoak: hezkuntza	16
4.4.1. Familia eta Komunitateko erizaintza	16
5. EZTABAIDA	17
6. ONDORIOAK	19
7. BIBLIOGRAFIA	20

AURKIBIDEA: taulak, irudiak eta eranskinak.

Taulen aurkibidea

- 1. Taula:** PIO egitura eta atal bakoitzeko DeCS, MeSH eta Hitz gakoak.....3

Irudien aurkibidea

- 1. Irudia:** PRISMA diagramaren bitartez lana egiterakoan erabilitako artikuluen aukeraketa prozesua.....5
- 2. Irudia:** OB eta GP duten umeen tratamenduan gurasoek duten parte hartzea baldintzatzen duten faktoreak.....9
- 3. Irudia:** gurasoen aurrekari eta ezaugarriek OB eta GP duten umeen tratamenduan izan ditzaketen ondorioak eta emaitzak.....9
- 4. Irudia:** Umeen obesitatearen tratamenduan kontuan hartzeko 12 barrerak, klinika, heziketa, osasun aseguruak, legedia eta ikerketetan sailkatuta.....11

Eranskinen aurkibidea

- 1. Eranskina:** Metodologia taula, erabilitako artikulua lortzeko egindako azken bilaketak barneratzen dituena.....24
- 2. Eranskina:** Metodologia taula orokorra, lana egiteko erabilitako artikulua guztien aukeraketa prozesua adierazten duena, egindako bilaketa guztiak barneratuz.....25
- 3. Eranskina:** lan hau egiteko erabili diren artikuluekin egindako CASPE txantiloilak, artikulua mota eta bibliografiaren zenbakien arabera sailkatuta.....33
- 4. Eranskina:** lan hau egiteko prozesuan CASPE txantiloien bitartez kanporatuak izan diren artikulua, artikulua mota eta bibliografiaren zenbakien arabera sailkatuta.....41
- 5. Eranskina:** Aukeratutako artikuluen laburpen taula.....48
- 6. Eranskina:** umeen obesitate konplikazioak: fisikoak eta psiko-sozialak.....55
- 7. Eranskina:** OB eta GP duten umeentzako 4 galdetegi.....55

LABURDURAK

- ASEBA: Sistema de Evaluación de Base Empírica de Achenbach.
- BVS: Biblioteca Virtual de la Salud (Osasunaren liburutegi birtuala).
- CASPE: Critical Appraisal Skills Programme Español (Ebaluazio kritikoko gaitasun programa).
- CBCL: The Child Behavior Checklist (Umearen jarrerren gai-zerrenda).
- CDI: Children's Depression Inventory (Umeen depresio zerrenda).
- DeCS: Descriptores en ciencias de la salud (Osasun zientzien deskriptoreak).
- EKG: elektrokardiograma.
- FBSFT: Family-based behavioral social facilitation treatment (Familiar oinarritutako erraztasun sozialaren jarrerren tratamendua).
- GMI: Gorputz masaren indizea.
- GP: Gainpisua.
- LDL: Low-density lipoprotein (dentsitate gutxiko lipoproteina-kolesterola).
- MeSH: Medical Subject Headings (Osasun arloko goiburuak).
- OB: Obesitatea.
- OME: Osasunaren Mundu Erakundea.
- PAP: Physical Activity on Prescription (Agindutako jarduera fisikoa).
- PIO: Patient, Intervention, Outcome (Pazientea, interbentzioa, emaitza).
- SDOH: Social Determinants of Health (Osasunaren determinatzaile sozialak).
- SPPC: Self-Perception Profile for Children (Umeentzako autopertzepziozko profila).
- YEDE-Q: The Youth Eating Disorder Examination-Questionnaire (Umeen elikadura nahasteen aztertze galdetegia).

1. SARRERA

Mundu mailan, Gainpisua (GP) eta Obesitatea (OB) duten umeen prebalentzia % 23-koa da (1). Euskadiri dagokionez, 2-17 urte bitarteko umeetan 2012. eta 2017. urteak konparatuz, OB jaitsi egin da; % 12,80tik % 8ra mutiletan eta % 9,43tik % 5,7ra nesketan. GPari dagokionez aldiz, zifrak igo dira; % 12,62tik % 25,9ra mutiletan eta % 14,56tik % 25ra nesketan (2).

Datu hauek ulertzeko, gainpisua eta obesitatea bi kontzeptu desberdin direla jakin behar da, OME-k (Munduko Osasun Erakundea) diagnostikoa egitean honela definitzen dituenak. 0-5 urte tartean: umeen altuerarentzat pisuak media baino altuagoa izan behar du, 2 puntu gorago gainpisan eta 3 puntu gorago obesitatean. 5-19 urte bitartekoetan: GMIaren (Gorputz masaren indizea) arabera neurtzen da, desbideratze bat dagoenean gainpisua eta bi desbideratze edo gehiago egonda obesitatea izanik (3).

Gaixotasun hauen tratamendu egokia lehenetsi behar da, osasun zailtasunen garapena eragotzi edo jada umeak dituenak kudeatzeko (4). Hau burutzeko, erizaintzak parte hartzen du; zainketak modu integral batean emanez indibidua eta bere inguruari (familia, komunitatea...), osasun-gaixotasun prozesuan jarraipen bat eginez (1).

Jarraipen hau egiteko, ume baten osasuna zer den definitu beharko genuke. OMEren arabera hemezortzi urtetik beherako gizaki oro da umea, salbu eta aplikagarri zaion legearen arabera, lehenago adin-nagusitasuna lortu badu. Era berean, osasun kontzeptua erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera dela dio OMEk, eta ez bakarrik afekziorik edo gaixotasunik eza (3).

Honenbestez, bi kontzeptu hauek elkar jarrita, ume baten osasuna kontu fisikoa bakarrik ez dela aztertu daiteke, ongizate mental eta sozialak kontuan hartuz osasuntsu dagoen edo ez esateko. Beraz, GP eta OB tratatzeko garaietan, arazo sozioekonomiko, kultural eta hezkuntza arazoak aurkitu daitezke, ume baten egoera osotasunean ulertzeko zailtasunak izanez (3, 5).

Diagnostikoa, tratamendua eta jarraipena oinarri izango dituen prozesu honek GP eta OB duten umeetan zein ondorio izan ditzakeen jakin nahi da. Eta hare gehiago, zer egin beharko lukete erizainek haur hauen osasuna osotasunean aztertu, zainketa egokiak ezarri eta beraien bizitza kalitatea eta osasun ongizatea bermatzeko?

2. HELBURUAK

Lan honek helburu batzuk ditu oinarri, jarraian zerrendatuko direnak, orokorretik hasi eta espezifikoetan bukatuz.

2.1. Helburu orokorrak

- GP eta OB duten umeen osasun ongizatea eta bizitza kalitatea bermatzeko erizaintza zainketak aztertzea.

2.2. Helburu espezifikoak

- OB eta GPak umeetan duen eragin biologiko, psikologiko eta soziokulturala ezagutzea.
- OB eta GP duten umeentzako erizaintza esku-hartzeak deskribatzea.
- OB eta GP duten umeetan hezkuntzak duen garrantziaz jabetzea.

3. METODOLOGIA

3.1. Bilaketa bibliografikoaren estrategia

Berrikuspen bibliografiko honetan, ikerketa-galdera garatzeko eta aztergaia bideratzeko PIO (Patient, Intervention, Outcome) egitura erabili zen, aurretik aipatutako helburuei erantzuteko. PIO egitura zehaztu ondoren, honen atal bakoitzari zegozkion *DeCS* (Descriptores en ciencias de la salud) eta *MeSH* (Medical Subject Headings) deskriptoreak bilatu ziren. Deskriptore hauetaz gain, bilaketa zehatzagoa izan zedin, hitz gakoak erabili ziren (Ikus 1. taula).

Ikerketa galdera hurrengoa izan zen: *“Zeintzuk izan daitezke erizaintza zainketak gainpisua edo obesitatea duen ume baten bizitza kalitatea eta osasun ongizatea bermatzeko?”*

1. Taula: PIO egitura eta atal bakoitzeko DeCS, MeSH eta Hitz gakoak.

PIO egitura		Galderaren emaitzak	
Patient (pazientea)		Gain pisua eta Obesitatea duten umeak	
Intervention (esku-hartzea)		Erizaintza zainketak	
Outcome (emaitzak)		Bizitza kalitatea eta osasun ongizatea bermatzea	
DeCS	MeSH	Hitz gakoak	
P	- "Obesidad Infantil"	- "Pediatric Obesity" - "Childhood Obesity" - "Overweight, Childhood" - "Obese and overweight children"	- "Haurren loditasuna" - "Haurtzaroko obesitatea" - "Haurtzaroko gainpisua" - "Gainpisua edo obesitatea duten haurrak"
I	- "Enfermeras y Enfermeros" - "Enfermeros de Salud Comunitaria" - "Atención de enfermería"	- "Nurses" - "Nurses, Community Health" - "Nursing care"	- "Erizain" - "Erizaintza komunitarioa" - "Erizaintza zainketak"
O	- "Salud infantil" - "Calidad de vida" - "Protección a la Infancia"	- "Child Health" - "Quality of life" - "Health-related quality of life" - "Child welfare"	- "Haurtzaro osasuntsua" - "Bizi-kalitatea" - "Haurren ongizatea"

Iturria: propioa.

Deskriptoreak erabaki ondoren, bilaketa bibliografikoa 2023ko irailaren 18tik 2024ko abenduaren 27ra bitartean burutu zen, AND, OR eta NOT operadore bolearren bitartez DeCS, MeSH eta hitz gakoak lotuz. Ondorengo iragazkiak ere erabili ziren, zehaztasun handiagoa lortzeko; argitalpen data azken 10 urteetan eta hizkuntzak gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz izatea.

Bilaketa bibliografikoa gauzatu ahal izateko, osasun-zientzietan oinarritutako ondorengo datu-baseak izan ziren erabilitakoak: Pubmed, Dialnet, Cuiden, Cochrane eta Biblioteca Virtual de la Salud (BVS). Aitzitik, Osagaiz eta Ekaia aldizkarietan ere bilaketak egin ziren. Hontaz gain, aurkitutako artikulua esanguratsuenetatik ateratako zeharkako bilaketak erabili ziren artikulua desberdinak lortzeko. Gainera, ondorengo web orrialdeak izan ziren erabiliak: OME, Erikaeskola eta Eusko Jaurlaritzak.

Datu baseetan egindako bilaketa desberdinak DeCS, MeSH eta hitz gakoaren arteko lotura bat ziren. Bilaketa estrategia bakoitzean PIO egitura jarraitu zen eta datu base bakoitzaren bilaketa arauen arabera moldatu zen, ahalik eta bilaketa antzekoenak lortzeko bilatzaile desberdinetan. Erabilitako artikulua lortzeko egindako bilaketak taula batean adierazi dira (Ikus 1. eranskina). Azkenik, prozesu osoan zehar egindako bilaketa guztiak bigarren taula batean izan dira idatziak (Ikus 2. eranskina).

3.2. Bilaketa bibliografikoaren emaitzak eta artikuluen aukeraketa

Bilaketa egin ostean barneratze eta baztertze irizpideak aplikatu ziren, artikuluen aukeraketa zehaztasun gehiagoz burutzeko.

Barneratze irizpideak:

- Ikuspegi biopsikosozial, ekonomiko eta kulturala kontuan hartzea.
- Ikerketan eta programetan erizainen parte-hartzea.


Kanporatze irizpideak:

- Covid-19a ardatz zuten ikerlanak.
- Soilik prebentzioari zuzendutako ikerlanak.
- Nerabeak bakarrik barneratzen zituzten ikerlanak.

Barneratze-kanporatze prozesua gauzatu ostean, aukeratutako artikulua baloratu egin ziren, hauek aztertuz. Ondorengo pausuak izan ziren jarraitutakoak: izenburua aztertzea, artikulua laburpena irakurri eta ideia garrantzitsuak azpimarratzea, hitz gakoak aztertzea eta gaiaren helburuak identifikatuz irakurketa sakonago bat egitea.

Irakurketa sakonagoa gauzatzeko, irakurketa kritikoan oinarritzen den CASPE (Critical Appraisal Skills Programme Español) deituriko txantilo bidezko teknika erabili zen, artikuluko batzuk aukeratuz (Ikus 3. eranskina) eta gainontzekoak kanporatuz (Ikus 4. eranskina). Horrela, artikuluko motaren arabera item batzuk aztertuz, artikuluko egokienak aukeratu ziren, hauen laburpenak taula batean adieraziz (Ikus 5. eranskina).

Balorazio hau egin ostean, PRISMA diagramaren bidez adierazi zen artikuluen aukeraketa prozesua (Ikus 1. irudia). Bilaketa bibliografikoaren bitartez 47 artikuluko lortu ziren 6 bilatzaileetan. CASPE erabili ostean, 23 artikuluko aukeratu ziren. Zeharkako bilaketaren bitartez 3 artikuluko eskuratu ziren. Guztira, 26 artikuluko erabili dira lan hau aurrera eramateko. Hauetatik 20 ingelesez, 5 gazteleraz eta 1 euskaraz.



1. Irudia: PRISMA diagramaren bitartez lana egiterakoan erabilitako artikuluen aukeraketa prozesua. Iturria: propioa.

4. EMAITZAK

4.1. Gainpisua eta obesitatearen eragina umeetan

OB, heterogeneoa, kronikoa eta ume batean osasun fisiko, psikologiko eta espiritualak erasotzeko gaitasuna duen gaixotasuna da. GPak modu berean eragiten du, kronikotasuna kenduz. Tratamenduaren helburu nagusia, umearen osasun ongizate eta bizitza kalitatea hobetzea da (5). Modu desberdinetara eragiten dute OB eta GPak umean, ondorengo puntuetan sailkatzen direnak:

4.1.1. Umean duen eragin biologikoa

Pisuan oinarritutako biktimizazioak estres kronikoa sortzen du umearengan, bullingarekin batera, energia erregulatzeko funtzionamendu normalak zailduz eta erantzun immunitarioa ahulduz (5).

Ondorioz, estres honek, umearengan eragin fisiko zuzena dauka. Hala ere, OB duten umeek, arnas zailtasuna, hezur hauste, hipertentsio, gaixotasun kardiobaskular eta intsulinarekiko erresistentzia pairatzeko aukera gehiago dituzte (5, 6) (Ikus 6. eranskina). Datu zehatzagoetara sartuz, OB-ak eragindako dislipemiak, triglizeridoen gorakada, dentsitate handiko lipoproteinen beherakada (HDL) eta dentsitate gutxiko lipoproteina-kolesterolaren (LDL) gorakada ekartzen ditu. OBA hiperglizemiarekin eta intsulinarekiko erresistentziarekin dago lotuta; bi hauek 2. motako diabetea garatzeko arrisku faktore izanik (7).

Lynch *et al.*ek (8) ondorengoa diote: erlazio positibo bat dagoela OB edo GPak eragiten duen estres psikosozial eta sintoma depresiboen artean, kortisol kopuruak igota baitaude.

4.1.2. Umean duen eragin psikologikoa

Umeen obesitate eta gainpisuaren zailtasunek ondorio metaboliko eta psikosozial ugari eragiten dituzten arren, psikosozialki, pisuan oinarritutako biktimizazioak umeen osasuna latz mehatxatzen du, ondorio metabolikoak sortzen dituen kalteen pareko izanik; atentzio defizita, hiperaktibitatea, lo-nahastea, elikadura nahasteak eta antsietatea sortuz adibidez. Erizainen lana zinez garrantzitsua da hemen, aldi berean gertatzen diren trastornoak aztertu ahal izateko (5) (Ikus 6. eranskina).

Askotan, pisuan oinarritutako biktimizazio hau umeek beraiek bultzatzen dute, nahigabe bada ere. 2022. urtean Lobos *et al.*ek (6) ziotenez, 6 urte inguruko umeek jada estereotipo

negatiboak pisu gehiegikeriarekin lotzeko gaitasuna dute eta GP edo OB duen ume bat hain atsegina ez dela ondorioztatu dezakete, nesketan mutiletan baino ohikoagoa izanik. Azkenik, depresioa izateak helburu akademikoak, erlazio interperpersonalak eta suizidio edo autolesio pentsamenduak areagotzen ditu. Gainera, faktore garrantzitsu bat da gaixotasun kronikoen garapenean (8).

4.1.3. Umean duen eragin soziokulturala

- a. *Inguru soziala eta kultura*: obesitatearekin loturiko zailtasun psikosozialak oso ohikoak dira. Pisuaren ondoriozko estigma jasaten duten umeek psikosozialki ondorioak jasateko aukera gehiago dituzte, bizitza kalitatea kaltetuz (5).

Bizitokiak berebiziko garrantzia dauka, adibidez, 2022an Heggem *et al.*ek (9) ziotenez, landa bizitzak umeek GP edo OB pairatzeko aukera gehiago sortzen ditu. Bestalde, landa eremuetako ohiturek janariarekin atxikimendu estua dute eta honek bertan bizi den biztanleriaren pisuan eragin zuzena du, modu desberdinetan:

Alde batetik, elikadurarekin zer ikusia duten ekintza hauek komunitatearen loturak estutzen dituzten arren, arazo bilakatu daitezke energian aberatsak diren elikagai ugari jaterako garaian (9, 10).

Bestalde, ekonomikoki sarrera gutxi dituen gunetan bizitzeak, janari fresko murriztua dela eta, jatetxe eta janari azkarrak duen eskuragarritasuna handiagotzen du (11). Halaber, Heggem *et al.*en (9) esanetan, sarrera ekonomiko gutxi dituzten familien umeek, asko dituztenak baino gorputz atsekabea sentitzeko aukera gehiago dituzte.

Ondorioz, testuinguruaren edo pertsonen izaeraren ezaugarriak oinarritzat hartzen dira landa eremu edo hiri eremuen arteko desberdintasunak definitzerakoan, desberdintasun ekonomikoak azpimarragarrienak izanik (9). Ezegonkortasun ekonomiko hauei beste estresore batzuk gehitzen zaizkie; diskriminazioa eta osasun zerbitzuen eskuragarritasun urriak, babes mehatxuak eta janaria izatearen segurtasun gabeziak, besteak beste (5).


Kulturen sinesmenek ere eragina dute. Askotan, hazkuntza azkar baten nahiak, haurraren elikaduran bularreko esneaz gain formularen erabilera gehitzera ekartzen du. Adibidez, zerealak gehitzen dizkiote nahasketari, eta elikagai solidoen kontsumoa aurreratzen da. Honek, Gross *et al.*en (11) esanetan,

hazkuntza azkarrago bat ekartzen du umean, epe luzera obesitatea izateko aukerak areagotzen dituena.

- b. *Familia*: 2019an Chinan egindako “*Parental Perceptions of Obesity in School Children and Subsequent Action*” ikerketan, Butler *et al.* en (12) esanetan, GP edo OB duten umeen gurasoen ia erdiak beraien seme-alaben egoeraz jabetzen ez zirela ondorioztatu zuten. Honek, interbentzioen atzerapena dakar, gurasoen pertzepzio egoki batek tratamendu prozesua azkartuko bailuke. Dena dela, oraindik ez dira gurasoen arrazoitze honi dagozkion faktore kontestualak aztertu, hauen pertzepzioa “betaurreko kultural” batzuen zehar ikusten baita (13).

Escudero *et al.* ek (14) ziotenez, umeen OB eta GP pairatzeko aukera aldagai sozial eta genero aldagaietan oinarritzen da neurri batean, aita edo ama izatearen kasuan desberdintasunak egonik. Gipuzkoan, aiten kasuan, hauen ikasketa baxuak edo erretzaile izateak jaiotzako GParekin eta 4-7 urte bitarteko GParekin lotzen dira, hurrenez hurren. Gipuzkoan ere, amen kasuan, atzerritarra izateak 4 urteko umeen GParekin du lotura (14). Bestalde, OB gurasoetan biek badute, % 69 - 80koa da umeak ere izateko aukera. Batek badu, % 41-50ekoa. Gurasoek obesitaterik ez badute, % 9ra jeisten da (7). Dena dela, Frontini *et al.* ek (6) ziotenez, generoa dena delakoa izanda ere, aldagai garrantzitsu bat OB pediatrikoa kohesio gutxi duten familietan sortu ohi dela da.


Halatan, beraien umeen osasunean arazo bat dagoela ikusteko gai diren gurasoak motibatuagoak daude bizimodua aldatu eta aktiboki helburu bat ezarri eta betetzeko, epe motz eta luzean (13). Motibazio hau faktore desberdinek baldintzatu dezakete, umearen arazoaren detekzioan eta tratamendu prozesuan zuzenean eragiten duena (15) (Ikus 2. irudia).



2. Irudia: OB eta GP duten umeen tratamenduan gurasoek duten parte hartzea baldintzatzen duten faktoreak. Iturria: (15), moldatua.

Gurasoen nahi eta motibazioak garrantzia izan arren, Innella *et al.*ek (16) ziotenez, aurreko puntuan aipatu bezala, sarrera ekonomiko gutxiagoko familiek, guraso bakarreko edo amek 10 ordu baino gehiago lan egiten duten familiek elikadura patroia desegokiak izateko aukera gehiago dituzte.

Hortaz, familien pertzepzioek, beraien osasun egoerek eta sarrera ekonomikoek zer esan handia dute umearen eboluzioan. (Ikus 3. irudia)



3. Irudia: gurasoen aurrekari eta ezaugarriek OB eta GP duten umeen tratamenduan izan ditzaketan ondorioak eta emaitzak. Iturria: (13), moldatua.

4.2. Umeen bizitza kalitatea eta osasun ongizatea


Bizitza kalitatea bere barnean hiru talde nabarmen hartzen dituen kontzeptu zabala da; Alde batetik, bizitza baldintza objektiboak (Ongizate fisikoa, material ongizatea, ongizate soziala, garapena, aktibitatea eta ongizate emozionala). Bestetik, bizitza baldintza subjektiboak (Pertsonen asebetetzea, aurretik aipatu diren baldintza objektiboen inguruan). Azkenik, balore pertsonalak eta aspirazioak (Pertsonak, aurretik aipatu diren baldintza objektiboek ematen dieten garrantzia). Osasun ongizateari dagokionez, ongizate fisiko-emozional-soziala da, subjektibo eta objektiboa, gainontzeko kontzeptuekin batera bizitza kalitatea osatzen duena (17).

Kontzeptu guzti hauek modu holistiko batean barne hartzeko, interbentzio bezala, *Social Determinants of Health* (SDOH) deiturikoak erabili daitezke, umeen osasunean eragiten duten faktoreen batura baitira. Ezaugarri eta jarrera indibidualak uztartzeaz gain, alderdi ekonomiko eta sozialak barne hartzen dituzte. SDOHak pertsonak jaio, hazi, bizi, hezi eta heltzen diren modua dira. Bost oinarrizko kategoriatan sailkatzen dira: egoera ekonomikoa, hezkuntza, osasuna, osasun arreta, kontestu sozial eta komunitarioa eta bizitokiko ingurunea (10).

GP edo OB duten umeek osasun mentalarekin zer ikusia duen bizitza kalitate eta osasun ongizate eskasago bat izateko aukera gehiago dituztenez, erizainen presentzia biziki garrantzitsua da, hortaz eskuragarri egon behar diren profesionalak dira (6, 18). Ikasi ditzaketen bizitza ohitura hauek umeen ongizatea definitzen dute eta honen kudeaketa desegoki batek ezegonkortasuna sortu dezake osasun egoeran (19).

4.3. Erizaintza esku-hartzeak OB eta GP duten umeetan

Erizainek funtsezko eginkizuna dute haurren osasun fisiko eta psikosozialerako mehatxu hau arintzen. Hau jorratzeko, ebidentzian oinarritutako elikagai, kirol, jarrera eta interbentzioen laguntza ematen du erizainak, umearen osasunean eragiten duten eta etengabeko elkarreraginean dauden oinarrizko 12 oztopoak kontuan izanda (5) (Ikus 4. irudia).



4. Irudia: Umeen OBren tratamenduan kontuan hartzeko 12 oztopoak, klinika, heziketa, osasun aseguruua, legedia eta ikerketetan sailkatuta. Iturria: (5), moldatua.

4.3.1. Erizaintza esku-hartzeak

OB eta GP tratatzerako orduan, ondorengo puntuak dira aztertzen direnak: hazkuntza historia, pisu eta neurri egokiak (pisu pertzentila), hazkunde ibilbidea eta pisu gehikuntza hasi zen adina. Prozesu honen parte diren eta izango diren interbentzioak ugariak dira, patologia zabal eta heterogenoak baitira. Umearekin erabili diren metodoak, funtzionatu eta porrot egin dutenak gida bezala erabiltzen dira umearen egoera definitzerako orduan. Hortaz, erizain bezala garrantzitsua da umeak aurretiaz jaso dituen tratamenduak zeintzuk diren identifikatzea (5).

a. Dietak

Energia askoko elikagaiak, gantz, azukre askearen kontsumoaren gorakada eta fruta eta berduraren kontsumoaren beherakadak dira GP eta OB ekartzen duten elikadura ohituren arrazoi nagusiak. Honi, guraso edo tutoreen gainbegiratze urria lotzen bazaio, aukerak handiagoak dira (20).

Tratamendu eta interbentzio desberdinak aurreikusten dituzte ikerketa desberdinek (Grupo GENUD, Academy of Nutrition and Dietetics, National Institute for clinical

Excellence, Scottish Intercollegiate Guideline Network, Spanish Ministry of Health, Australian National Health and Medical Research Council, Styne et al. Endocrine Society, World Health Organization). Hurrengo puntuetan banatu dira (4, 20):

- Kaloria murrizketa txikiak: kaloria murrizketa handiak oso gutxitan dira beharrezkoak. Gainera, murrizketa handi hauek epe motzerako pisu jaitsiera ekartzen dute, baina epe luzeko jarraipen handirik eta amaierako emaitza garrantzitsurik gabe. Umearen GP edo OB mailaren arabera izango da tratamendua. GP duten umeetan, 1.200-1.300 kcal arteko dieta gomendatzen da. Bestalde, OB dutenetan, epe motzean eguneko 600 eta 900 kcal arteko ahoratzeak egin behar dituzte, hazkuntza kontrol eta elektrokardiograman (EKG) egon daitezkeen aldaketak behatuz eta erritmo kardiakoari jarraipen bat eginez.
- Zati-tan oinarritutako dieta.
- Umeek gastatutako energiaren arabera dieta, kaloria zenbatuz.
- Janari azkarra baztertu eta azukre kontsumoa kendu.

Dieta dena dela, garrantzizkoa da umeei ohituretan hezkuntza ematea, hauek barneratuz bizitza estiloa aldatu dezaten eta ondorioz elikadura ikusteko duten modua aldatzeko.

b. Kirola

GP edo OB izateak, umearen jolasteko gaitasunean, kirolarekiko atxikimenduan eta kirol parte hartzean eragin dezake, kirol gutxiago egitera eramanez (4). Hortaz, epe luzerako ohiturak dakartzan kirol eta elikadura ekintzak bereziki garrantzizkoak izango dira haur hauek.

Aktibitate fisikoa areagotzen duten eta jolasteko seguruak diren guneak ebaluatu, defendatu eta eman behar dira. Auzoetan jolasteko gune segururik gabe, umeak ez dira kalera aterako, ekintza sedentarioetan murgilduz. Berezi hiri-guneetan jolastoki hauek bermatzea zinez garrantzitsua da. Eguneroko aktibitate fisikoa duten eskolek, GMIa balore normalen artean dute, eta obesitatea eta gainpisua pairatzen duten umeen kopuru murriztagoa (16).

Aldiz, 2018an, Euskadin, 7-14 urte bitarteko mutilen % 5,6ak eta nesken % 7,9ak ez zuen kirol egiten. Bestalde, mutilen % 62,5ak eta nesken % 53,3ak astero bi ordu baino gehiagozko kirol saioak egiten zituzten. 2015. urtean, 6-9 urte bitartekoetan, astean 2-4 ordu bitarteko kirol saioak egiten zituztela aztertu zen (2).

Aktibitate fisikoaren galera umeen OBaren faktoretzat hartzen den arren, kopuru hauei OB eta GP duten umeen ehunekoak uztartzen badizkiegu, argi ikusten da kirol egiten duten horien artean badaudela OB eta GP duten umeak, kirola egitea ez baita pisu osasuntsu bat lortzeko faktore bakarra.

Interbentzio bezala, “*Physical Activity on Prescription*” (PAP) erabili daiteke, OB edo GP duten umeetan. Boman *et al.*ek (21) ziotenez, efektu positiboak ditu PAPak, gantz eta intsulinarekiko erresistentzia jaitsieran besteak beste. PAPA ondorengo pausuetan oinarritzen dela diote: pertsonan zentratutako hizketaldia, indibidualizatutako kirol gomendioa eta jarraipen estua.

Kirola gutxitzeak, eguneroko ekintzak barne (eskolara oinez joan), OB edo GP pairatzeko aukera gehiago ematen dituzte. Joera hau jolas aktiboaren jaitsiera eta ariketa sedentarioen gorakadarekin ere aztertu daiteke. Gainera, egoera hau telebista, kontsola edo ordenagailua gelan bertan izateak ere eragiten du (19).

c. Interbentzio psikosozialak: motibaziozko solasaldiak, ekintzetara bideratutako aholkularitza.

Interbentzio psikosozialak obesitatearen faktoreak areagotzen dituen estresoreak identifikatzean datza. Bullying-a, zirikatzeak eta pisuagatiko diskriminazioa dira ohikoenak, antsietatea, depresioa eta autoestimua gutxitzea dakarten ondorio kaltegarriak sortzen dituztenak.

Komunikazio eraginkorra helburu hau lortzeko oinarria da; umea, familia edo zaintzaile nagusiekin zuzenean hitz eginez. Kontuan hartu behar dena, umeak pairatzen duen gaixotasuna obesitateak sortzen duen eremu desberdinetako osasun kalte larriak sortzen dituela da (5).

Erizainek, prozesu osoan zehar umeek psikologikoki duten egoera aztertzeko elkarrizketetatik informazioa ateratzen duten arren, inkestetaz baliotu daitezke umearen informazio osagarria lortzeko, ondorengoak adibidez (Ikus 7. eranskina).

The Child Behavior Checklist (CBCL), jarrera eta emozio sintomak neurtzen dituena. *Children’s Depression Inventory (CDI)*, depresioaren sintoma kognitibo, afektibo eta jarrerazkoak aztertzen dituena. *Self-Perception Profile for Children (SPPC)*, auto-pertzepzioa edo autoestimua neurtzen duena. *The Youth Eating Disorder Examination-Questionnaire (YEDE-Q)*, elikadura patroiak eta elikadura nahasteen psikopatologia aztertzen duena (22).

Galdetegiak gehigarri bat izan daitezkeen arren, familiaren jokaeran oinarritutako erraztasun sozialeko tratamendua (Family-based behavioral social facilitation treatment, FBSFT) da umeen OB eta GPa uztartzeko ikuspuntu dokumentatuena. Tratamendu konduktualaren printzipioetan oinarritzen da, familian eta inguruan oinarrituz (22).

Tratamentu honek zertan datzan ulertzeko, umearengan guraso, zaintzaile eta inguruak duen eragina aditu behar da.

Aurrerago aipatu diren eragin sozialeko bi multzo garrantzitsuak, inguru soziokulturala eta familia, hartzen dituzte kontuan. Sesio hauetan zehar, gurasoei teknika desberdinen inguruan hitz egiten zaie; janari, kirol eta pisuaren autokontrola eramatea, helburu errealisten ezartzearen garrantzia, emozioen kudeaketa, pentsamendu negatiboen kontrola, komunikazio gaitasunak, gurasoen estrategiak, autoebalutzeko tresnak... Eta epe luzeko jarraipen bat ematen zaie (22).

- Motibaziozko solasaldiei dagokienez, erizainen jarrerak garrantzi handia du prozesu honetan. Emaitzetan eta beraien lan profesionalean ez sinisteak, motibazio urriak, jarrera positiboa ez izateak eta pisuagatiko alborapenak pazienteak atxikimendua galtzea ekar dezake. Hala ere, garrantzi guztia ez dago hornitzailearen esku. Kanpo hesiak ere badaude; pazientzia eta gurasoen motibazio edo inplikazio urriak, denbora gutxi izateak eta baliabide faltekin praktika-jarraibideak betetzean oztopoak sortzen dituzte (23,24).

Hori dela eta, erizainen esku dauden faktoreak murriztea helburu da. Pediatrak, erizainak eta nutrizionistak gaian entrenatzea garrantzitsua da, motibaziozko interbentzioetan parte hartu dezaten. Horrela, zaintza primarioan efektiboa eta ekonomikoki errentagarria den interbentzioa gauzatu daiteke (25).

- Ekintzetara bideratutako aholkularitzaren bidez, motibaziozko elkarriketek pazienteei “zer egin” behar dutenaren fokua gutxitu eta pazientean zentratutako eta motibazioan oinarritutako jarrera aldaketak bilatzen dituzte, beraien barruan aldaketa aurkitu dezaten. Aholkularitza hau ez da pazienteekiko kritikoa, enpatikoa eta pozgarria izan behar da (26).

Interbentzioa “5 A” teknikan dago oinarritua: *ask* (galdetu), *advise* (aholkatu), *agree* (onartu), *assist* (lagundu) eta *arrange* (konpondu) (26):

- *Galdetu*: lehen pausua eguneroko ekintzak eta pazienteak duen motibazio maila jakiteko galderak egitea da. Hornitzaileak barreren, aldaketarako daukaten prestutasunaren eta iraganean izan dituzten saiakeren inguruan

galdetuko du. Aldaketarako 6 maila daudela azalduz, familia eta pazientearen zeinetan dauden kokatu behar dira; aurre-ikuspena, ikuspena, prestaketa, akzioa, mantentzea eta amaitzea.

- *Aholkatu*: umearen egoeraren inguruko informazioa ematean datza; GMIa zer den, epe luzean OB eta GPak nola eragiten duen eta familiarentzat aldaketak dakartzan alde positiboak zeintzuk diren jakitea adibidez.
- *Onartu*: paziente bakoitza bi helburu errealista eta zehatzekin joan dadin nahi da, bata kirola eta bestea nutriziozkoa.
- *Lagundu*: planifikazioan oinarritzen den pausua da. Taldeka estrategia desberdinak aukeratzean datza, aurrerago identifikatu diren barrerak gainditzeko.
- *Konpondu*: emaitza positibo bat lortzeko prozesuaren jarraipena, sortu daitezkeen barrerak gaindituz. Garrantzizkoa da epe luzeko helburuak zeintzuk diren jakitea, motzekoetan zentratzea baino (GMIaren jaitsiera adibidez). Pazienteek beraien ekintzekiko kontrola dute, ez beraien pisuagatikoa.

Erizainen helburua elkarrizketen gida eramatea da, umeen ongizatea bermatzeko eta bitzita osasuntsu bat eraman dezatela motibatuzko (18).

d. Ebakuntzak

Obesitatearen aurkako terapia desberdinak daude:

- “Espazioa hartzen” duten gailuak (baloi intragastrikoa).
- Xurgatzea murrizten dutenak (“mauka” luminalak).
- “Nerbio bago”aren estimulazioa.
- Aspirazio gailuak (5).
- Kirurgia bariatrikoa: elikadura eta kirol atxikimendu nahikoa duten pazienteetan soilik (4).

Gailuei dagokienez, denbora baterakoak dira, kendu eta moldatu daitezkeenak (5). Gailu hauen bitartez GMIa jaisten den arren, emaitzek epe motzean irauten dute. Epe luzerako, bitzita ohiturak aldatzea eta hauei jarraipen bat egitea da helburua. Gainera, gomendioa ebakuntzetan oinarritutako interbentzio hauek heldutasun psikologikoa duten umeetan soilik egitea da, nahiko subjektiboa den gaia izanik (4).

Gainera, ebakuntza egitea arrisku eta zailtasunekin dago lotuta (12). Ebakuntza aurrera eramaten bada, dietaren ebaluazioa, elikadura nahastearen arriskua, ebakuntza plastikoaren erabilera (beharra balezko)... dira kontuan hartu beharreko faktore batzuk (4).

e. Farmakoak

Farmakoterapia hau gehienbat obesitatean da erabilia. Talde interdisziplinarrak hartzen du parte prozesu honetan, kudeaketa zehatza eta arrisku gabekoa burutzeko (5). Orokorrean ez da terapia hau gomendatzen, oso muturreko kasuetan bakarrik, eta 12> urtekoetan kasu berezietan erabili behar da soilik (4).

4.4. Estrategia espezifikokoak: hezkuntza

Aurretik aipatutako estrategietaz gain, familiak jaso behar duen hezkuntza bereziki garrantzitsua den helburu bat da. Ebidentzian oinarritutako espazio kliniko bat izateak umea eta familiarentzat sostengu kliniko eta emozionala dakar (5).

Gurasoen heziketaren oinarria haurtzaroan pisu osasuntsu bat izateak duen garrantziaz informatzea da, eta honek umearen osasun egoera orokorrean duen zamaz ohartaraztea. Informazio saio hauek osasun publikoa eta heziketa pediatrikoarekin uztartuz zainzaileei erabilgarria egingo zaien oinarria izango dute (12). Hezkuntza prozesu honetan, erizainak umeen erantzun guztiei adi egon behar dira, beraien auto konfiantza zein den ikusteko. Umea eta familiaren egunerokotasuneko aldaketa osasuntsuetarako euskarri izan behar dira. Prozesu honen erraztasun ezak eta denbora faltak, zaildu egiten du erizainen interbentzioa, tresna nahikoak ez izateak pazienteekiko irisgarritasuna murrizten baitu (18).

4.4.1. Familia eta Komunitateko erizaintza

Erizainek lan garrantzitsu bat betetzen dute atentzio pertsonalaren gehitzean eta osasunaren sustapenean, gaixotasunen prebentzioan eta garapen komunitarioan. Hortaz, beraien praktikak duen irismena dela eta, erizainek lehen arreta maila egoki bat hornitzen dute, unibertsalki irisgarria eta zientifikoki sendoa dena (7, 25).

Beraien zainketa integralek osasun sustatzea eragiten dute, umeen osasun jarrerei iharduten laguntzeko (10). Zainketa integral honek ondorengo atalak izan ohi ditu: hezkuntza, terapia kognitibo konduktuala, talde lan sustapena, umea eta familia uztartzen

dituzten ekintzak, inguru sozial eta eskolako kontuan izatea eta umeei euskarri emozionala ematea (6, 18).

Hezkuntza oinarri duten interbentzioek puntu desberdinak hartzen dituzte barnean: OB eta GParen etiologia, arrisku psikosozialak (bullying-a, zirikatzea), lan egiteko gelaren ezaugarriak (aulki eta azterketa mahaiaren tamainak, tentsioa hartzeko zorrotxoak...) eta pisuaren inguruan hitz egiteko sentzibilitatea (pribatasuna, baimena) adibidez. (5, 24).

Aipatzekoa da osasungintzak eta hezkuntzak lehen mailako arretarekiko kolaborazioa behar dutela, faktore kontestualak ulertu ahal izateko (27). Bizilekua garrantzizko faktore bezala hartzen da, osasun desparekotasunekin lan egiteko. Landa eremuko faktore konposizional eta kontestualak kontuan hartzeko beharra nabarmena da (9).

2014ean Walsh *et al.*ek (26) ziotenez, maiztasun gutxiko (5-6 saio urteko) urtebeteko programak epe luze eta motzeko helburuak betetzen hasteko erreferentzia puntu egokiak ziren.

Programa hauetan, OB eta GP duten umeen familien uztartzea sartzen da. Hemen, erizainek modu desberdinetara antolatu dezakete interbentzio taldea, baina helburuak ezartzeko familiek jakintasuna, jarrera eta gaitasunak zeintzuk diren jakin eta hauek hobetu behar dituzte (28). Bestalde, anai arriben parte hartzea ere gomendagarria da saio hauetan. Sesio praktiko eta bisualen bitartez, marrazkiak egitea besteak beste, umeen parte hartzea eta inplikazioa handitzeko (15).

5. EZTABAIDA

Sarreran aipatu den ikerketa galderari erantzunez interbentzio egoki, osatu eta holistiko bat burutzeko umearen inguru psikosozial-ekonomiko-kulturala kontuan hartu, programaren denbora optimoa ezarri eta talde interdisziplinari baten presentzia izatea oinarritzkoa da. Umeak aurretiaz jasotako tratamendua (jaso badu) kontuan izan behar da, ondorio psikologikoak zeintzuk izan diren aztertu ahal izateko adibidez.

Programaren parte izan daitezkeen motibaziozko solasaldien garrantzia eta honek bultzatzen duen ekintzetara bideratutako aholkularitza umearen osasun psikologikoa zainduko duen interbentzioa da. Elikadurarekiko, beraien gorputzekiko eta kirolarekiko harreman osasuntsu bat bermatuz osotasunean erizaintza zainketa borobilduko duena. Prozesuan parte hartuko duten indibiduo guztiek hezkuntza maila bat jaso behar dute; guraso, haur eta langile (1).

Langile hauen barnean, erizainei dagokienez, GP eta OB duten umeekin eta hauen inguruarekin egin behar dituzten interbentzioak txikiak, gradualak eta indibidualak izan behar dira, arrakastadun esku-hartze bat izan dadin. Halaber, aurretiaz esan bezala, zainketak ez dira guztiz erizainaren gain erortzen (18). Guraso eta haurrei dagokienez, motibazioa oinarrizko barrera bat da, familia-ume erlazioan tratamenduaren uztartzea guztiz baldintzatzen duena. Familiaren (guraso, anai-arreba) konpromezu eta laguntza izateak prozesua azkartu eta eragina handituko du (1).

Inguru psikosozial-ekonomiko-kulturala aztertuz, oztopo garrantzitsu bat umearen inguruak dituen diru sarrerak dira. Askotan, GP eta OBak oinarri kulturalaz gain, diru-sartze oinarria baitute, oinarri ekonomiko-sozial bat alegia: sarrera ekonomiko gutxi dituzten familiei gehiago eraginez (11). Ikasketa maila, gurasoen osasun egoera, bizitokia, bizitza aktiboa izateko denbora, eskuragarritasuna etab. Horretarako, gizarte bezala osasun baliabideak irisgarriak izan daitezten bermatu behar da, ebidentzian oinarritutako tratamenduak hein batean sarrera ekonomiko murrizak dituzten pertsonen bereziki bideratuz; arazoa larriagoa baita maila sozioekonomiko baxua duten populazioetan (14, 27).

Umearen diru sarrerez gain, azpimarratzekoa da gaur egun jarduera asistentzial hau betetzen duen erizaintza alorra komunitarioa dela Espainia mailan. Beste herrialde batzuetan, eskola erizaina eta komunitarioaren artean jorratzen dira eginkizunak. Eskola erizainaren esku-hartzeko estrategia zinez berezia da, eskoletan hezkuntza emateaz gain, umeen errealitatera gehiago gerturatzeko aukera baitute, lan honetan aipatu ditugun oztopo guzti hauek ikusi, ulertu eta sakontzeko aukera handiagoa izanik.

Gizarte bezala osasun baliabide hauek bermatzeaz gain, alor desberdinak kontuan izan beharko lirateke; umeen jarrera eta egoera psikosoziala beraien obesitateak eragindako mundua ikusteko dituzten betaurreko sozialek baldintzatzen baitute (5). Honek autoestimua eta intseguritateak izatera eramaten dituzte, erru sentimendua gauzatuz, gizarteak ezarri dizkien edertasun estandarretara ezin iritsi baitaude. Beraien gorputz irudia kontestu sozialaren arabera eraikitzen dute, betaurreko sozial hauek oinarrizko ikuspuntu izanik (6).

6. ONDORIOAK

Ikerketa gehiago behar duen gaia izan arren, jada badagoen informazioarekin hurrengo ondorio psikosozial-ekonomiko-kulturalak atera daitezke (4):

Psikosozialki; lanketa bat egiteko beharra dago. Bai pisuagatiko ematen diren alborapenengatik bai biktimizazioagatik. Hauek, umean eragin zuzena dute, eta gizarteak du honekiko zeregin eta erantzukizun handiena. Gizarte bezala gorputz anitzak daudela onartzea eta hauek itxuragatik soilik ez baztertzeak mesede handia egingo lieke GP eta OB duten umeei, hauen ohituren aldaketen prozesua erraztuz.

Kulturalki; erizaintzatik at gelditzen diren faktore eta barrera guztiak zeintzuk diren ohartzeak gaia ulertzeko perspektiba ematen du. Osasun profesional naiz familiekiko hezkuntzak, arazoa ez lausotzeko eta ideiak argi izateko aukera ematen du, umearen zaintza eta interbentzioak erraztuz.

Ekonomikoki; OB eta GP duten umeen interbentzio egokiak definitu eta hauen bizitza kalitate eta osasun ongizatea bermatzeko laguntzailea izan daitekeen erizaintzaren alorra zabaldu behar da, eskola erizainen bitartez zehazki. Zabaltze horren bitartez pixkanaka herrialde desberdinetan osasun sustapena hobetu eta holistikoki ezartzea ideia interesgarri bat izan daiteke. Ekonomikoki herrialdeentzat esfortzu bat izan arren, umeentzako epe labur baina batez ere epe luzerako osasun ongizatea eta bizitza kalitatea hobetzearen alde egingo litzakeen esfortzu bat da; osasuna sustatzearen aldeko esfortzua, alegia.

7. BIBLIOGRAFIA

- (1) Agustí MCS. Programa I2AO2_Family: abordaje interdisciplinar de la obesidad infantil liderado por enfermería de familiar y comunitaria [Internet]. dialnet.unirioja.es. 2019 [konsulta, 2023/12/29]. Erabilgarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/dctes?codigo=289510>
- (2) Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila. SANO Haurtzaro aktibo eta zioriontsuaren aldeko hitzarmena. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [Internet]. 2019 [2023/11/22]; VI-64. Erabilgarri: [https://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=&ved=2ahUKEwjm-
uft49CDAxVc8LsIHYnrDY4QFnoECB0QAQ&url=https%3A%2F%2Fwww.eu
skadi.eus%2Fcontenidos%2Finformacion%2Festrategia_obesidad_infantil%2Fe
s_def%2Fadjuntos%2FEstrategia-Prevencion-Obesidad-Infantil-
Euskadi.pdf&usg=AOvVaw2ogFNCLf_MoBnD8nA3lyEx&opi=89978449](https://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=&ved=2ahUKEwjm-
uft49CDAxVc8LsIHYnrDY4QFnoECB0QAQ&url=https%3A%2F%2Fwww.eu
skadi.eus%2Fcontenidos%2Finformacion%2Festrategia_obesidad_infantil%2Fe
s_def%2Fadjuntos%2FEstrategia-Prevencion-Obesidad-Infantil-
Euskadi.pdf&usg=AOvVaw2ogFNCLf_MoBnD8nA3lyEx&opi=89978449)
- (3) Organización mundial de la salud [Internet]. Organización Mundial de la Salud: Who.int; 2018. [konsulta, 2023/11/25]. Erabilgarri: <https://www.who.int/es>
- (4) Tully L, Arthurs N, Wyse C, Browne S, Case L, et al. Guidelines for treating child and adolescent obesity: A systematic review. Front Nutr. 2022. 9:902865. doi: 10.3389/fnut.2022.902865.
- (5) Browne NT. Obesity and Children. Nurs Clin North Am. 2021. 56(4):583-597. doi: 10.1016/j.cnur.2021.07.006.
